



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)




© 2016, Violeta Monreal  
© Itzulpena: 2017, Joseba Santxo Uriarte  
© Euskarazko argitalpena:  
2017, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.  
Legizamon poligonoa  
Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.  
48450 Etxebarri  
Tel.: 94 426 90 72



ISBN: 978-84-16839-28-5  
Lege-gordailua: M-19570-2017  
Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila



Sailaren zuzendariak:  
Joseba Santxo eta Maite Malagón  
Editoreak:  
Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja  
Errealizazioa:  
Miren Pellejero  
Arte-zuzendaritza:  
José Crespo eta Rosa Marín  
Proiektu grafikoa:  
Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektualak dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

# Pirata izan nahi zuen orbana

Violeta Monreal



begiko



**PAUL KLEE** margolariaren artelana zapuztuta zegoen.

**Gorputz urdineko** pertsonaiari jendea atsegin zitzaion, baina amorrua ematen zion jendeak ez jakiteak bera zer zen benetan.

Batzuek esaten zuten munstro bat zela beroki urdina jantzita; beste batzuek katua zela; edo txakurra, edo animalia ezezaguna...

Baina **PAUL KLEE** margolariaren artelaneko orbanak ondo baino hobeto zekien bera zer zen, zer izan nahi zuen, eta zer egin nahi zuen.


Neguko egun eguzkitsua zen, eguerdiko ordu bata, hau da, jende guztia aperitifa hartzera irteten den ordua.

Orduan **orban urdina** PAUL KLEE margolariaren artelane-tik kanpora joan zen ihesi, oihukatzen zuela:





**ILE URDINEKO PIRATA  
IZAN NAHI DUT!**



**GURARIEN  
ZUHAITZERA  
JOAN NAHI DUT!**

**BENETAKO LAGUNA  
ESKATU NAHI DIOT!**

Hau desastrea!

**Orban urdina** falta zenez, **PAUL KLEE** margolariaren artelana zati-zati egin zen. Atalak lurrean sakabanatu ziren punpaka, pilotak balira bezala.

—Pirata izaten lagunduko dizugu —esan zuten guztiek batera.

—Geuk ere joan nahi dugu zurekin! —egin zuten oihu **begi horiek**.





Baina **orban urdinak** ondotxo zekien zer nahi zuen.

**BURU BAT BEHAR DUT!  
BAITA BEGI BERRIAK ERE!**




**BURUAK ESKATUKO DIZKIET  
BESTE MARGOLARIEN ARTELANEI!**




Margolan askok eskaini zizkioten buruak, era askotakoak,  
gainera!



**MIRÓ**  
estilokoa,  
ilargi itxuran.



**MALEVITX**  
estilokoa,  
arlekin itxuran.




**KANDINSKY**  
estilokoa,  
itsasontzi itxuran.



**PICASSO**  
estilokoa,  
oihu itxuran.





**MAGRITTE**  
estilokoa,  
puxika itxuran.



**KLEE**  
estilokoa,  
puzzle itxuran.

**DEN-DENAK PROBATUKO DITUT!**



**AUKERATZEA EZ DA  
ERRAZA, BAINA!**

